



Kaleidoskopia **Joxemari Iturralde**

“Gara” egunkariaren gehigarritik ateratako artikulubilduma bat da. Hortaz, bertan jorratzen diren gairik gehientsuenek gaurkotasuna izan dute une jakin batean, baina gaurkotasun hori dagoeneko galduta daukate kasurik gehienetan. Horrek liburuari interesgarritasuna kentzen dio, eta normala da, kazetaritzaren esparruarekin askotan gertatzen den gauza izanik. Dena den, artikuluen gaurkotasuna handiagoa edo txikiagoa da, gaiak zeintzuk diren. Baina, esan bezala, gaurkotasuna izan duten baina jada ez duten gaiak dira gehientsuenak.

Iturraldek bere artikuluetan aditzera ematen dituen iritzi eta jarrera askorekin identifikatuta sentitzea, zur aski, ez da oso zaila. Iturralderen euskara –liburu honetan, behintzat– praktikoa da, komunikakorra da, eta kazetaritzako eta, oro har, komunikabideetako hizkuntzaren ikuspegitik oso eredu sendoa eta fidagarria eskaintzen du. Berez ez da literarioa. Edo, behintzat, ez da literarioegia (kazetaritza da, ezta?).

Egileak, artikuluhuetan, abstrakziorako joera txikia erakusten du, eta nik horri bai, garrantzia ematen diot. Abstraitzeko gauza diren idazleak bereziki ditut gogoko: ez-ohiko begirada bat erakustea, pentsamendurekin jolasean aritzea, gogamenari hegalak ematea edota originaltasuna agertzea gaiak planteatzeko edota jorrazeko orduan –nahiz eta gai sinpleak edo topikoak izan–, ohi-ez-bezalako ikuspuntuak proposatuz eta ohiko ikuspegiak ezohiko modu batean agerian jarritz... hori guztia garrantzitsua da niretzat. Eta alde horretatik, liburu ahula dela esango nuke.

Azken batean, Joxemariaren pentsamendua “Gara”ko beste edozein irakurlearen antzekoa da (kultur gertakariei, irakurketei, eta abarrei buruzko artikuluetan izan ezik, hor tamaina pertsonalagoa agertzen baitu). Bestalde, dela gaiengatik dela Iturralderen euskaragatik dela egilearen jarrera pertsonalagatik, liburua oro har gustura irakurtzen da eta etxean bezala sentiarazten zaitu, maiz jorraturiko gaiak jorrazuz, bai, baina... gustura, hala ere.

Liburua amaitu gabe bueltatu dut liburutegira. Egunen batean, agian, azkeneko artikulua irakurtzen bukatuko dut.